Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Finantza Zuzendaritza
Dirección Financiera

Ijentea, 1 - Tel. 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

OF008

UDALBATZARI

**Udal zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen zerga Ordenantza**

Batera arautzen ditu Udalak ematen dituen hainbat zerbitzutako tasak, esaterako, hondartzetako zerbitzuak, osasun zerbitzuak, larrialdiko abegi zerbitzua, dokumentuak eta kartografia kopiatzekoak, Artikutzako zerbitzuak, garraio berezietarako laguntza, hesi eta aldamioak ikuskatu eta zaintzekoak, igarobide plakak saltzea, bidaiarien udal garraio publikoaren zerbitzua , ingurumen zigilua , Udaltzaingoko Zerbitzuak eta autobus geltokiko zerbitzuak.

1. 2. artikuluak, zergapeko egitateak, tasa honetan zergapeko egitateak diren jarduera eta zerbitzuen zerrenda jasotzen du, bere idazketan. Egiaztatu denez, idazketa horretan diktamen honen 1. paragrafoan aipatutakoren bat falta da; beraz, falta direnak (Hesi eta aldamioen ikuskatze eta zaintza zerbitzuak, mugikortasun departamentuko zerbitzuak, Udaltzaingoaren zerbitzuak) eta jarraian proposatuko direnak sartzea proposatzen dugu.

Artikulu beraren 4. atalean, honako zerbitzu hauen tasak aipatzen dira: dokumentuak, kartografia, aireko argazkiak, espediente zigortzaileak eta kalteetakoak eta adituen txostenak kopiatzea, eta ibiko plakak banatzea.

Jasotako egitateak heterogeneoak dira; beraz, proposatzen da, batetik, ibi plakak banatzeari buruzko aipamena kentzea, jasota dagoelako jada Mugikortasun Zerbitzuetarako eranskinaren 9. Atalean, eta, bestetik, 5. atal berria sortzea, udal txostenak egiteko zerbitzuak biltzeko. Atal berri horretan txostenak egiteari lotuta aplikatu beharreko tasa guztiak sartuko dira.

AL AYUNTAMIENTO PLENO

**Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la Prestación de Servicios y la Realización de Actividades Municipales.**

Se regulan de forma conjunta las tasas por diversos servicios que presta el Ayuntamiento, como los servicios que se prestan en las playas, los servicios de sanidad, de acogida de emergencia, los de reproducción de documentos y cartografía, los servicios de Artikutza, de ayuda a transportes especiales, de inspección y vigilancia de vallas y andamios, el suministro de las placas de vado, el servicio urbano de transporte público de viajeros, el sello ambiental servicios de la Guardia Municipal, y Servicios en la estación de Autobuses

1. El artículo 2º, Hecho Imponible, recoge en su redacción una relación de los distintos servicios y actividades que constituyen hechos imponibles de esta tasa. Se constata, que en esta redacción falta alguno de los mencionados en el 1er párrafo de este dictamen, por lo que se propone la inclusión de los que se han omitido, (Servicios de inspección y vigilancia de vallas y andamios, Servicios del departamento de movilidad, Servicios de la Guardia Municipal) y de los nuevos que se proponen a continuación.

El apartado 4 de este mismo artículo, hace referencia a las tasas por los servicios de reproducción de documentos, cartografía, fotografías aéreas, expedientes sancionadores y de daños, informes periciales y suministro de placas de vado.

Los hechos que recoge son heterogéneos por lo que se propone quitar la mención a suministro de placas de vado, ya que está recogida dentro del apartado 9 del anexo para los Servicios de Movilidad, y crear un nuevo apartado 5 para los Servicios de elaboración de informes municipales, incorporando a este nuevo apartado todas las tasas a aplicar por la elaboración de informes

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6114n V 2005-02

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Finantza Zuzendaritza
Dirección Financiera

Ijentea, 1 - Tel. 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

2. Berregituraketa horren ondorioz, eranskinaren 4. atalean batera bilduko dira dokumentuak, kartografia eta aireko argazkiak kopiatzeari dagozkion tasak; 5. atalean, berriz, txostenak egiteagatiko tasak jasoko dira, eta 9.ean, ibi plaken banaketa, Mugikortasun Zerbitzuen barruan. Bakoitzaren izaera bera kontuan hartuta, nahitaezkoa da sailkapen berri hau egitea, non bereizi egingo den txostenak egitea eta dokumentuak kopiatzea.

Atal berri hau osatuko duten txostenak egiteagatiko tasak dokumentu hauei dagozkie:

Istripuei eta gatazka zibiletan izandako esku hartzeei buruzko Udaltzaingoaren eta Su-hiltzaileen dokumentazio osoa.
Isunen zigor espedienteei eta premiamenduko administrazio espedienteei buruzko dokumentazio osoa.
Ondasun higiezinetan izandako kalteei buruzko udal txostenak.
Suteei buruzko adituen txostenak, azterketa analitikorik gabe.
Suteei buruzko adituen txostenak, azterketa analitikoekin.
Horiei guztiei gehitu behar zaizkie gaur egun 9. atalean jasota daudenak; hots, istripuei eta gatazka zibiletan izandako esku-hartzeei buruzko mugikortasun agenteen dokumentazio osoari eta bide publikoan jarritako seinaleen seinaleztatze egoerari buruzko mugikortasun zerbitzuaren dokumentazioari dagozkionak.

Atal berri horretan, "Dokumentazioa" hitzaren ordez "Txostena" jartzea proposatzen da, tasen txostenak izendatzeko.
Proposatzen da, halaber, agertzen diren tasak sinplifikatzea, haien arteko desberdintasun bakarra txostena igorri duen departamentua denean; hala, tasa bakarra agertuko da edozein udal zerbitzuk igorritako txosten mota bakoitzeko.

Horrela, txostenen araberako egungo tasak dira:
- Istripuei eta gatazka zibiletan izandako esku hartzeei buruzko Udaltzaingoaren eta Su-hiltzaileen dokumentazio osoa.
- Isunen zigor espedienteei eta premiamenduko administrazio espedienteei buruzko dokumentazio osoa.

2. Como consecuencia de esta reestructuración, en el anexo quedarán agrupadas en el apartado 4 las tasas por reproducción de documentos con las de cartografía y fotografía aérea; en el apartado 5 las tasas por la elaboración de informes; y el 9 de Servicios de Movilidad la de placas de vado. La propia naturaleza de cada uno de ellos hace necesaria esta reclasificación, diferenciando la elaboración de informes de la mera reproducción de documentos.

Las tasas por la elaboración de informes que completarían este nuevo apartado son las correspondientes a :
Documentación completa de la Guardia Municipal y Bomberos sobre accidentes y sobre intervenciones en conflictos de índole civil.
Documentación completa sobre expedientes sancionadores de multas y sobre expedientes administrativos de apremio.
Informes municipales sobre daños en bienes inmuebles.
Informes periciales de incendios sin estudios analíticos.
Informes periciales de incendios con estudios analíticos.
A estas se añaden las que actualmente recoge el apartado 9, para Documentación completa de los Agentes de Movilidad sobre accidentes y sobre intervenciones en conflictos de índole civil, y para Documentación del Servicio de Movilidad referida al estado de señalización de la señalización instalada en vía pública.

En el nuevo apartado se propone sustituir el texto de las tasas de los informes definidos como "Documentación completa...", por "Informes...".
Se propone asimismo, simplificar la concurrencia de varias tasas que solo difieren en el departamento que emite el informe, a una para cada tipo de informe que emita cualquier servicio municipal.

De este modo las actuales tasas por informe:
- Documentación completa de la Guardia Municipal y Bomberos sobre accidentes y sobre intervenciones en conflictos de índole civil.
- Documentación completa sobre expedientes sancionadores de multas y sobre expedientes administrativos de apremio.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6114n V 2005-02

Finantza Zuzendaritza
Dirección Financiera

Ijentea, 1 - Tel. 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

| | |
|---|---|
| - Ondasun higiezinetan izandako kalteei buruzko udal txostenak.<br>- Suteei buruzko adituen txostenak, azterketa analitikorik gabe.<br>- Suteei buruzko adituen txostenak, azterketa analitikoekin.<br>- Istripuei eta gatazka zibiletan izandako esku-hartzeei buruzko mugikortasun agenteen dokumentazio osoa. -Bide publikoan jarritako seinaleen seinaleztatze egoerari buruzko mugikortasun zerbitzuaren dokumentazioa. | - Informes municipales sobre daños en bienes inmuebles.<br>- Informes periciales de incendios sin estudios analíticos.<br>- Informes periciales de incendios con estudios analíticos.<br>- Documentación completa de los Agentes de Movilidad sobre accidentes y sobre intervenciones en conflictos de índole civil. - Documentación del Servicio de Movilidad referida al estado de señalización de la señalización instalada en vía pública. |
| Honela idatziko dira:<br>- Istripuei edo gatazka zibiletan izandako esku-hartzeei buruzko udal txosten konplexuak. | Quedarán redactadas del siguiente modo:<br>- Informes municipales complejos sobre accidentes, o sobre intervenciones en conflictos de índole civil. |
| - Zigor espedienteei eta beste administrazio espediente batzuei buruzko udal txostenak. | - Informes municipales sobre expedientes sancionadores y otros expedientes administrativos. |
| - Bide publikoan jarritako seinaleen seinaleztatze egoerari buruzko udal txostenak. | - Informes municipales sobre el estado de señalización, de la señalización instalada en vía pública. |
| - Ondasun higiezinetan izandako kalteei buruzko udal txostenak.<br>- Suteei buruzko adituen txostenak, azterketa analitikorik gabe.<br>- Suteei buruzko adituen txostenak, azterketa analitikoekin. | - Informes municipales sobre daños en bienes inmuebles.<br>- Informes periciales de incendios sin estudios analíticos.<br>- Informes periciales de incendios con estudios analíticos. |
| Adituen txostenen 126,02 €-ko tasa, zeinari, hala behar bada, azterketaren kostua gehituko baitzaio, alde batera utzita, gainerako txosten guztiei 45,94 €-ko tasa ezarriko zaie. | Salvo los informes periciales que tienen una tasa de 126,02€, mas el coste del estudio en caso de que sea necesario, todos los demás informes tienen una tasa de 45,94€ |
| Txosten horiek osatzeko, beste bi tipologia hauek gehitzea proposatzen da:<br>- Gatazka zibiletan edo istripu txikietan izandako esku-hartzeei buruzko udal txosten sinpleak. | Se propone completar estos informes con dos tipologías mas:<br>- Informes municipales simples, sobre intervenciones en conflictos de índole civil, o en accidentes menores. |
| - Udal txostenak DBLOren eskakizunetara egokitzea. | - Adaptación de informes municipales a los requisitos de la LOPD |
| Bi suposamendu berri horiei udal txosten konplexuen tasaren erdia, hau da, 27 €-ko tasa ezartzea proposatzen da, kostuen azterketa justifikatuta dagoen moduan. | La propuesta, que se justifica en el estudio de costes, es de asignar a estos dos nuevos supuestos, la mitad de la tasa de los informes complejos, es decir 22,97€ |
| 3. Eranskinaren 13. atalaren taulan, adierazi behar da autobus geltokiaren zerbitzuen | 3. En la tabla del apartado 13 del anexo con los importes por los servicios de la estación de |

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6114n V 2005-02

zenbatekoek ez daukatela BEZik.

Aurretik esandako guztia oinarri hartuta eta Finantza Zuzendaritzak hala proposatuta, **OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAK** udalbatzari proposatzen dio, Ogasun Batzordearen aldez aurreko txostena ikusita, **ERABAKI** hauek har ditzan.

**LEHENENGOA:** Onartzea Udal zerbitzu emateko edo udalaren jarduerak egiteko tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren eranskinen aldaketa, azalpen zatian adierazitakoa.

***2. art. Zergapeko egitatea.***

*Tasen zergapeko egitate bat da udal zerbitzuak ematea eta udal jarduerak egitea, bereziki subjektu pasiboak xede dituztenak, haiei eragiten dietenak edo haien onurarako direnak, baldin eta haiek zuzenean edo zeharka motibatu badituzte. Haien jarduerak edo ez-egiteak direla-eta, udalak jarduera hauek egin eta zerbitzu hauek eman beharko ditu ofizioz:*

***1.-** Ondartzetan emandako zerbitzuak.*

***2.-** Sanitate zerbitzuak.*

***3.-** Pertsona eta ondasunentzako babes eta prebentzio zerbitzuak: harrera zerbitzuak, suteak itzaltzea, eraikuntza, eraisketen eta hondakinen prebentzioa.*

***4.-** Dokumentuak, kartografia eta aireko argazkiak kopiatzeko zerbitzuak.*

***5.-** Txostenak egiteko zerbitzuak*

***6.-** Artikutzako zerbitzuak*

***7.-** Garraio berezietan, ikuskizunen antolaketan eta antzekoetan laguntzeko zerbitzua.*

***8.-** Hesien eta aldamioen ikuskatze eta zaintza zerbitzuak.*

autobuses, indicar que no están sujetos a IVA.

En base a cuanto antecede, y a propuesta de la Dirección Financiera, **EL CONCEJAL DELEGADO DE HACIENDA Y FINANZAS** propone al Ayuntamiento Pleno que, previo informe de la Comisión de Hacienda, adopte los siguientes **ACUERDOS**:

**PRIMERO:** Aprobar la nueva redacción del texto de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, al modificar el artículo 2º Hecho Imponible , que queda redactado del modo siguiente:

***Art. 2º. Hecho imponible.***

*Constituye el hecho imponible de las tasas, la prestación de servicios y la realización de actividades municipales que se refieren, afectan o benefician de modo particular a los sujetos pasivos, cuando han sido motivados directa o indirectamente por los mismos, en razón de que sus actuaciones u omisiones obligan al ayuntamiento a realizar de oficio las actividades y a prestar los servicios siguientes:*

***1.-** Servicios prestados en las playas*

***2.-** Servicios de sanidad.*

***3.-** Servicios de prevención y protección de personas y bienes: con servicios de acogida, extinción de incendios, prevención de construcciones, derribos, y ruinas.*

***4.-** Servicios de reproducción de documentos, cartografía, fotografías aéreas.*

***5.-** Servicios de elaboración de informes*

***6-** Servicios de Artikutza*

***7.-** Servicio de ayuda a los transportes especiales, a la celebración de espectáculos, y similares.*

***8.-** Servicios de Inspección y Vigilancia de Vallas y Andamios*

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6114n V 2005-02

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Finantza Zuzendaritza
Dirección Financiera

Ijentea, 1 - Tel. 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

***9.- Mugikortasun Departamentuaren zerbitzuak***

***9.- Servicios del Departamento de Movilidad***

***10.- Hiri garraio zerbitzua.***

***10.- Servicio de transporte urbano.***

***11.- Ingurumen zigilua.***

***11.- Sello Ambiental.***

***12.- Udaltzaingoaren zerbitzuak***

***12.- Servicios de la Guardia Municipal***

***13.- Autobus Geltokian nahitaez eman beharreko zerbitzuak.***

***13.- Servicios obligatorios a prestar en la Estación de Autobuses***

**BIGARRENA:** tasa berriak onartzea hauetarako:

- Gatazka zibiletan edo istripu txikietan izandako esku-hartzeei buruzko udal txosten sinpleak: 22,97 €
- Udal txostenak DBLOren eskakizunetara egokitzea: 22,97 €.

**SEGUNDO:** Aprobar nuevas tasas para:

- Informes municipales simples, sobre intervenciones en conflictos de índole civil, o en accidentes menores, que asciende a 22,97€
- Adaptación de informes municipales a los requisitos de la LOPD, que asciende a 22,97€

**HIRUGARRENA:** Onartzea Udal zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen zerga Ordenantzaren Eranskinaren aldaketa, zeina esposizio atalean deskribatu baita.

**TERCERO:**Aprobar la modificación del Anexo a la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la Prestación de Servicios y la Realización de Actividades Municipales, descrita en la parte expositiva.

**LAUGARRENA:** 2017ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hauek Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakia behin betikotzat hartuko da, baldin eta erreklamaziorik aurkezten ez bada.

**CUARTO:** Tramitar estos acuerdos a regir desde el 1 de enero del año 2017, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostian, 2016ko uztailaren 28an

Donostia / San Sebastián, 28 de julio de 2016

OGASUN ZERBITZUAREN BURUA
EL JEFE DE SERVICIO DE HACIENDA

Fdo./Izpta.: Javier Garcia Ramos

FINANTZA ZUZENDARIA
EL DIRECTOR FINANCIERO

Fdo/Izpta.: Oscar Villasante Arbelaiz

OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA,
EL CONCEJAL DELEGADO DE HACIENDA Y FINANZAS,

Fdo./Izpta.: Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6114n V 2005-02